



1. BALIO PROPOSAMENA


Gaur egun, **kutsadura oso problema larria** da. Hain da horrela, non mundua amaitu daitekeela pentsatu den 2050. urtearen inguruan. **Klima aldatzen ari da, poloak urtzen ari dira eta zaborra belarrietatik ateratzen zaigu**, beste gauza askoren artean. Hala eta guztiz ere, datuak hobetzen ari direla nabaria da.



“Y si todo esto se acaba en 2050, ¿qué?” (El País)

* [ArgazkiarenEsteka](#)
* [ArgazkiarenEsteka](#)

Datuek erakusten duten moduan, jendea **gero eta kontzientzia handiagoa** du gai hauen aurrean. **Europan, egungo birzikleta-tasa %73ren inguruan** dago, nahiko datu ona dena (Espainian %70), baina pentsatzeko beharra dago. zenbat tona zabor da %30 hori eta non dago. Itsasoan, adibidez. Oso famatua da Zabor-Irla, 135° 155°Ora eta 35° 42°Nra kokatuta dagoena (Hawaietik 1000km ingurura) eta 1,6km²-ko azalera duena (Espainia 1,2km²). Uhartea hau bezalako adibideek daukagun arazo larria isladatzen dute, eta aldaketa ohiu-ohiuka eskatzen dute.



* [ArgazkiarenEsteka](#) * [ArgazkiarenEsteka](#)

Arazoa gaindi dezagun, gure enpresak **zakarrontzi desberdin batzuk ekoizten ditu**. Zaborrontzi horiek, **scanner bat dute, zaborraren konposizioa aztertzeko eta ondo ontziratzeko**. Scanner hori IAz dago eraturta, sistemak ikas dadin eta gero eta azkarrago egin ahal izateko banaketa. Tamainiaren aldetik, kontainer arruntak baino handiagoa izango da; biren tamaina izango du, alegia. Hori dela medio, espazioa aurreztuko dugu eta espero dugu birziklatze-tasa %100ra hurbiltzea.



*[ArgazkiarenEsteka](#) [Argazkiaren esteka](#)

Jendeari galdetu zaio zergatik ez duen birziklatzen, eta erantzun ohikoenak honako hauek dira ([InformazioarenOrrialdea](#)):

- **Esfortzu** extra txiki bat beharrezkoa da
- **Ez dute lekurik** etxean ontzi guztiak izateko
- Hirietan oro har “**ez da birziklatzen**”
- **Ez da ezer eskuratzen** birziklatzeagatik
- Ez dakitelako zertarako **balio** duten

Gauzak horrela, ikus dezakegu zein ona den gure proposamena. Zakarrontzi hauekin dugun plana **Bilboko udalera eta fabriketara** eskaintzea da, oso handiak direlako eta ez duelako zentzurik etxeetan banatzea scannerraren bitartez geroago kaleetan ere banatuko bada. Horretarako, **urte bateko kontratuak** eskainiko ditugu (300.000€ inguru), eta arduratuko gara behar diren zaborrontziak eskaintzeaz, mantenimenduaz eta urtean zehar ager zitekeen arazo desberdiak konpontzeaz. Ondorioz, ez birziklatzeko dauden arrazoi askorekin amaituko dugu; ez da esfortzu extrarik egin behar, etxean ez da banatu behar, gero kaleetan egingo delako eta horrela isladatuko da hiriak oso kontzientziatua daudela gai honetan.



*[ArgazkiarenEsteka](#)

